



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

## **Batzar Nagusiek eskaerea egin deutsie Aldundiari, errepideko istripuei buruzko informazioa jasoten dauen esteka bat argitaratu daian bere web gunean**

Bilbon, 2014ko martiaren 7an

Batzar Nagusietako Herri Lan eta Garraioetako Batzordeak aho batez onartu dau gaur Foru Aldundiko Herri Lan eta Garraioetako Sailari eskaerea egitea, bere web gunean foru errepide sarean gertatutako istripuei buruzko datuak argitaratu daizan, Eusko Jaurlaritzako Bide Segurtasun eta Mobikortasun Behatokiaren web gunera eroaten dauen estekea jarritz.

PP taldearen arauz besteko proposamenak hasiera batean Aldundiak berak datu horreek hiru hilebetez behin argitaratzea eskatzen eban, baina azkenean aldatu egin da, EAJ-PNV taldearen zuzenketa-eske bati esker. Holan, estadistika horreek, Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzaren behatokiak argitaratzen dituan istripu mailari buruzko txostenetara esteka zuzen baten bitartez argitaratuko dira. “Helburua informazio iturri bakarra egotea da”, azaldu dau Javier Setien jeltzaleak.

Batzarretako talde guztiek begi onez ikusi dabe informazio hori eguneratuta ezagutarazotea. “Garrantzitsua” da, istripu kopuruaren eta bide segurtasunaren egoerearen barri izateko eta jarduketaren bat behar daben sareko lekuei buruzko datuak jasotzeko. Esteka hori baliagarria izango da gure errepideen bilakaerearen barri izateko eta “puntu baltz eta istripu pilaketa zati” moduan hartutako errepideko puntu horreek “hobetzen” ahalegintzeko, adierazo dau Jesus Isasi batzarkide popularrak.

### **EZ DA ONARTU ERREPIDEEN IKUSIZKO KATALOGOA BAZTERTZEKO PROPOSAMENA**

PP taldeak aurkeztutako beste arauz besteko proposamen bati buruzko eztabaidan, batzordeak ez dau onartu Aldundiari Bizkaiko Errepideen Ikusizko Katalogoa baztertzeke edo, gitxienez, trafiko arau haustek erakusten dituen irudiak kentzeko eskaerea egiterik. Jesus Isasi batzarkide popularrak esan dau Aldundiak ezin deusala “publizidaderik emon legez kontrako gauza bati”, bideoetan ibilgailuak bide bazterretan aparkauta agertzeari, adibidez. “Foru Arauaren kontrakoa da”, esan dau. Proposamena ez da onartu, aldeko boto bigaz (PP), kontrako seigaz (EAJ-PNV) eta 5 abstentzinogaz (EH Bildu eta PSE-EE).

EAJ-PNV-ko Amaia del Camporen eretxiz, Bizkaiko errepide sarearen irudi errealak eta fotograma bakotxaren kokaleku zehatzari buruzko informazioa emoten dauen mapa digitala “oso erabilgarriak dira” herritarrentzat. Bere ustez, mapa horren bitartez Aldundiak ez dau trafiko arau hausterik “bultzatzen”. Foru errepide sarearen mapa digitalak ibilbide birtualak egiteko aukerea emoten dau, Erakundeak kudeatzen dituan errepideen 1.300 kilometroetatik. Joan dan urtarrilaren 22an aktibatu zan, eta 11.870 kontsulta jaso ditu Aldundiaren web gunean (bizkaia.net).



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

Ildo berean, PSE-EE taldeko Joaquín Colmenerok zalantzan jarri dau Aldundiak araua beteten ez dauenik, izatekotan be, “arau hauste bat erakusten dauen errealidade bati publizidadea emoten deutso”. EH Bilduko Aitor Torreren eretxiz, popularren proposamena ezertarako balio ez dauen zer edo zer da, katalogoa kentzeari jagokonez zein irudien bitartez hautemandako bide segurtasuneko arazoak konpontzeko eta udalakaz batera “aparkalekuetarako planak” diseinetako Foru Aldundia Eusko Jaurlaritzagaz alkarlanean aritu daiten egindako eskaerari jagokonez.

Horri jagokonez, Batzarretako generako taldeek uste dabe trafikoa zaintzeko betebeharrak Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen esku dagozala. “Beharra horregaz arduratu behar dana zehatzeko eskumena daukana da”, adierazo dau Joaquín Colmenero sozialistak. Gauza bera gertatzen da aparketako lekuak sortzeagaz. Amaia del Camporen ustez (EAJ-PNV) “uUdalak izan behar dira plangintza hori egin behar dabenak” .

#### GEREDIAGA-ELORRIO ERREPIDEKO OBRAK

Durango-Beasain ardatzaren barruan dagoan 6,4 kilometroko Gerediaga-Elorrio zatiko obrei jagokonez, Itziar Garamendi Herri Lan eta Garraioetako diputatu andreak esan dau esleipena daukien enpresek beharrean jarraitzen dabela “atzerapen txikia” konpontzeko eta aurreikusitako epeak bete ahal izateko. Aldundiko arduradunak EH Bildu taldeak eskatutako agerraldiaren bukaeran egin ditu adierazpen horreek. Agerraldi horretan ezeztu egin dau enpresa horrek “ingurumenaren babeserako baldintzakaz lotutako ‘ez beteterik’ egin dauenik.

Koalitzino abertzaleak egindako galderei erantzunez, obra horren “zuinketa aktea”, lanen hasiera modu ofizialean marketan dauen agiria, 2012ko urriaren 28an sinatu zala jakinarazo dau diputatu andreak, eta egun horren “aurretik” –“urriaren 23an”– Gobernu kontseiluak, beharrean hasteko legez bete behar dan Ingurumeneko Lanen Plana onartu ebal. EH Bilduko Aitor Torrek, hasieran, agiri hori, ebaketak hasi eta “hainbat hilebete geroago” onartu zala defendidu dau, Atxondoko Udalak egindako salaketak zirala eta, eta hori “kontratua bertan behera ixteko nahikoa errazoi zala”. Lehenengo hilebete horreetan ingurumenaren babeserako baldintzakaz lotutako “ez beteteak” egon ei ziran. Horreen artean, Torrek, “hasiera batean Uraren Euskal Agentziak (URA) baimendu bako isurketak” aitatu ditu.

EH Bilduk egin dauen ingurumenaren zainketa falta salaketeari erantzunez, Garamendik adierazo dau Ingurumen Saileko eta URAko teknikariek bilerak egin dituela lanak egiten ari dan enpresako arduradunakaz, eta “aldian behingo” bisitak egin dituela obretara. “Inoiz ez deuskue ingurumen arloagaz erlasionautako gertakarien edo ez beteteen barri emon”, esan dau. Nerea Ahedo EAJ-PNV-ko batzordekideak esan dauenez, “urtebete baino pixka bat gehiagotan 46 ‘hartu emon formal’ egon dira”.

Herri Lan eta Garraioetako diputatu andreak gogoratu dau, baita be, obren barruan beste jarduketa batzuk be jarri behar dirala martxan ingurumenean kalterik ez eragiteko. “Neurri konpentsatzaileak” dira, eta proiektuak sortzen dituan eraginak konpentsetako ingurumenagaz erlasionautako hainbat jarduketa behar dan moduan egiten dirala bermatzeko jarten dira martxan. Jarduketa horreen artean, Garamendik, errekek eta ibaiak babesteko instalautako “3.640 metro lastozko oztopoak”, “obrako betelan” bakoitzean instalautako dekantazino eta sedimentazino baltsak, hormigoi-kamioiak garbitzeko prestatu diran 30 guneak eta eragin gehieneko puntuetan gurpilak garbitzeko beste sistema batzuk, eta hondakin solidoak (metalak, bildukinak, plastikoak, papera, beira, egurrak...) jasoteko jarri diran edukiontziak aitatu ditu.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

Beste “babes eta konponketa” neurri batzuk be badagoz, arbolak babesteko edo landara inbaditzaileak kentzeko. Horrez gain, osasunerako urak lantzeko planta bi instaletea dago aurreikusita.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **Las Juntas Generales instan a la Diputación a publicar en su web información sobre accidentes de tráfico**

Bilbao, a 7 de marzo de 2014

La comisión de Obras Públicas y Transporte de las Juntas Generales ha aprobado hoy, por unanimidad, instar al departamento foral de Obras Públicas y Transportes de la Diputación a publicar en su sitio web datos de accidentes de la red foral de carreteras, mediante un “link” a la página del Observatorio de Seguridad Vial y Movilidad del Gobierno Vasco.

La proposición no de norma del PP, que inicialmente pedía que fuese la misma Diputación quien publicase estos datos de manera trimestral, ha virado finalmente, gracias a una enmienda del PNV, a que estas estadísticas sean difundidas a través de un enlace directo a los informes de accidentalidad que publica el observatorio de la Dirección de Tráfico del Gobierno Vasco. “Se trata de que exista una sola fuente de información”, ha explicado el jeltzale Javier Setien.

Todos los grupos junteros han visto con buenos ojos difundir esta información de manera actualizada. Es “importante” para tener conocimiento, tanto del número de accidentes y el estado en que se encuentra la seguridad vial, como para obtener datos de localizaciones de la red que precisan de una actuación. Este enlace servirá para comprobar la evolución de nuestras carreteras y para “mejorar” esos trazados viarios declarados como “puntos negros y tramos de concentración de accidentes”, ha señalado el apoderado popular Jesus Isasi.

### **RECHAZO A QUE LA DIPUTACIÓN RETIRE EL CATÁLOGO VISUAL DE CARRETERAS**

En el debate de otra proposición no de norma del PP, la comisión se ha negado a pedir a la Diputación que retire el Catálogo Visual de Carreteras de Bizkaia o, por lo menos, que elimine aquellas imágenes en las que se detectan infracciones de tráfico. El juntero popular Jesus Isasi ha mantenido que la Diputación no puede “publicitar una ilegalidad” como es el hecho de que aparezcan en los mapas digitales de este catálogo, vehículos aparcados en los arcenes. “Es un incumplimiento de la Norma Foral”, ha mantenido. La propuesta ha sido rechazada por dos votos a favor (PP), seis votos en contra (PNV) y 5 abstenciones (EH Bildu y PSE-EE).

Para Amaia del Campo, del grupo juntero del PNV, el mapa digital que ofrece imágenes reales de la red de carreteras de Bizkaia, junto con información detallada sobre la localización exacta de cada fotograma, es “sumamente útil” para los ciudadanos. No cree que, con ella, la Diputación “incentive” el que se cometan infracciones de tráfico. El mapa digital de la red de carreteras forales que permite recorridos virtuales a través de los 1.300 kilómetros de viales que gestiona la Institución se activó el pasado 22 de enero y ha registrado 11.870 consultas en la página web de la Diputación (bizkaia.net).

En la misma línea, Joaquín Colmenero, del PSE-EE, ha dudado de que la Diputación esté faltando a la normativa, en todo caso, “publicita una realidad donde se comete una ilegalidad”. Aitor Torre, de EH Bildu, ha definido la propuesta popular de un “brindis al sol”, tanto en lo que se refiere a la retirada de la página como en lo que concierne a la petición para que la



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

institución foral colabore con el Gobierno Vasco en subsanar los problemas de seguridad vial detectados a través de las imágenes y diseño con los ayuntamientos “planes de aparcamientos”.

En este sentido, el resto de grupos junteros cree que las funciones de vigilancia del tráfico están en manos de la Ertzaintza y de las distintas policías municipales. “Quien tiene que incidir es quien tiene la competencia sancionadora”, ha señalado el socialista Joaquín Colmenero. Lo mismo ocurre con el diseño para crear espacios de aparcamiento. A juicio de la jeltzale Amaia del Campo, deben ser los ayuntamientos los que elaboren esta planificación.

### OBRAS DE LA GEREDIAGA-ELORRIO

Respecto a las obras de la Gerediaga-Elorrio, un tramo de carretera de 6,4 kilómetros incluido en el eje Durango-Beasain, la diputada de Obras Públicas y Transportes, Itziar Garamendi, ha sostenido que las empresas adjudicatarias siguen trabajando para corregir el “pequeño retraso” y poder cumplir los plazos previstos. La responsable foral hacía estas declaraciones al final de una comparecencia, solicitada por EH Bildu, en la que ha negado que existan “incumplimientos medioambientales” por parte de estas empresas.

A preguntas de la coalición abertzale, la diputada ha informado de que el "acta de replanteo" de esta obra, documento que marca oficialmente el inicio de los trabajos, se firmó el 28 de octubre de 2012 y que “antes” de esta fecha –“el 23 de octubre”- el consejo de Gobierno aprobó el Plan de Trabajos Ambientales, requisito legal para iniciar las obras. Aitor Torre de EH Bildu defendía en un inicio que este documento se aprobó “meses después” de iniciarse el tajo como consecuencia de las denuncias realizadas por el Ayuntamiento de Atxondo, lo que suponía un "motivo suficiente para rescindir el contrato". En esos primeros meses, se habrían producido “incumplimientos” en materia medioambiental. Entre los mismos, Torre ha citado “vertidos no autorizados inicialmente por la Agencia Vasca del Agua (URA)”.

A la denuncia de falta de vigilancia medioambiental hecha por EH Bildu, Garamendi ha señalado que técnicos del departamento de Medio Ambiente y de URA han mantenido reuniones con responsables de la sociedad concesionaria y han realizado visitas “periódicas” a las obras. “En ningún caso nos han informado sobre incidencias o no conformidades relevantes en materia ambiental”, ha sostenido. La apoderada del PNV Nerea Ahedo ha cifrado en 46 los “contactos formales” producidos “en poco más de un año”.

La diputada foral de Obras Públicas ha recordado también que existen otra serie de actuaciones a desarrollar a lo largo de la obra para evitar daños al entorno. Son “medidas compensatorias” que se establecen para asegurar que se llevan a cabo una serie de actuaciones ambientales que compensen las afecciones que produce el proyecto. Entre estas actuaciones, Garamendi ha citado los 3.640 metros de “barreras de paja” instalados para proteger arroyos y ríos, las balsas de decantación y sedimentación instaladas "en cada relleno de obra", las 30 zonas habilitadas para el lavado de hormigoneras y otros sistemas de lavados de ruedas en los puntos de mayor afección, y los contenedores puestos para el acopio de los residuos sólidos (metales, embalajes, plásticos, papel, vidrio, maderas...). Existen otras medidas “protectoras y correctoras” para preservar ejemplares arbóreos o eliminar flora invasora, y la previsión de instalar dos plantas de tratamiento para aguas sanitarias.